

**ESKOLAKO OHARRAK****BEKAK**

Urtero bezala, zuen seme-alabentzat jantokiko eta materialerako bekak eskatzeko aukera izango duzue. Epea urriak 9tik azaroak 9ra arte irekita egongo da. Kontuan izan online egiteaz gain, eskolan bertan tramitatu daitezkeela; honetarako Idazkaritzan hitzordua telefonoz hartzea beharrezkoa izango da.

ESKOLAKO EMAIL KORPORATIBO FAMILIARRAK

Eskolako digitalizazio prozesuan aurrera goaz, horregatik eskolako familia bakoitzarentzat eskolako helbide elektronikoa sortu dugu. Gaurtik aurrera, zuen seme-alabek, eskolako helbide elektronikoa jasoko dute. Komunikazio kanal ofizial gisa erabiliko dugu eta eskolako informazio guztia eta irakasleekin harremana aipaturiko bide honetatik egiteko aukera izango du eskola komunitate osoak. Familia bakoitzaren helbide elektronikoa ahalik eta azkarren aktibatu eta pasahitza aldatzea eskatzen dizuegu, mesedez.

EUSKARA

2020-2021 Ikasturte honetan ere Udalak euskara ikasteko eta hobetzeko laguntzak emango ditu. Informatu eta egizu beste askok bezala, hobetu euskara! Eskaera egiteko EPEA: 2020ko urriaren 1etik 31ra. Informazio gehiago Oiartzungo Udaleko Euskara Zerbitzuan: 943493842/ euskara@oiartzun.eus

MUSUKOA ETA URA EDATEKO BOTILA

COVID19a dela eta, gomendagarria da zuen seme-alabek, eskolara bada ez bada ere, 2. musukoa ekartzea. Hau da, ikasleak bere musukoa galduko balu edo ekintzaren bat egiten zikinduko balu, gomendagarria da beste bat edukitzea. Bestalde, ura edateko edalontzi propioa edukitzea ere garrantzitsua da, gaixotasuna kutsa ez dadin.

ZORRIAK

Zorriak azaldu dira berriz eskolan. Hemen transmititzen dira ikasleak elkarrekin daudelako. Jakina da, zorriak edukiz gero zein den jarraitu beharreko tratamendua. Guraso batzuen aldetik kexa azaldu da. Alegia, beren seme-alabei tratamenduak egin arren, behin eta berriro azaltzen direlako. Askotan aztertu dugun gaia da eta eskolak tratamendua egiteko aholkua eman besterik ezin du egin. Mesedez, ongi begiratu zuen seme-alaben buruak zorriak desager daitezen.

AVISOS DE LA ESCUELA**BECAS**

Como cada año, existe la posibilidad de pedir beca tanto para comedor como para material. El plazo para solicitar las becas está abierto desde el 9 de octubre hasta el 9 de noviembre. Tened en cuenta que se podrá realizar dicha petición online o en la misma escuela; para poder hacerlo desde la escuela, es necesario concertar cita por teléfono.

EMAIL CORPORATIVO FAMILIAR DE LA ESCUELA

El proceso de digitalización de la escuela sigue adelante, y por ello hemos creado una dirección de correo electrónico para cada familia. A partir de hoy, vuestros hijos e hijas, llevarán a casa la dirección de correo electrónico con el que se podrá comunicar toda la comunidad escolar. Desde estas líneas pedimos que se active dicho canal oficial con la mayor celeridad posible, por favor.

EUSKARA

Este curso 2020-2021 también se darán ayudas para aprender o mejorar el euskera. Infórmate y haz como otros muchos, ¡**aprende euskera gratis!**” Plazo de solicitud: del 1 al 31 de octubre de 2020. Más información en el Departamento de Euskara del Ayuntamiento de Oiartzun: 943 493842 / euskara@oiartzun.eus

MASCARILLA Y RECIPIENTE PARA BEBER AGUA

Debido al COVID19, es recomendable que el alumnado tenga una segunda mascarilla en la escuela, por si la que está utilizando en ese momento se rompe, se pierde y o se ensucia. Además de ello, también es recomendable que el alumnado tenga su propia botella o vaso para beber agua y así poder evitar al máximo la propagación de la enfermedad.

PIOJOS

Los piojos han vuelto a aparecer otra vez en la escuela. Se suelen transmitir aquí, debido a que los niños y niñas están juntos. El protocolo que deben seguir los padres y las madres es conocido. Algunos padres y madres han mostrado su hartazgo en Dirección, ya que, aunque siguen el tratamiento, siguen apareciendo. Es un tema que hemos tratado en profundidad en la escuela y sólo podemos aconsejar que se siga el tratamiento. Por favor, mirad bien las cabezas de vuestros hijos e hijas para acabar con los piojos con la mayor celeridad posible.

ESKOLAKO ATAKAK

Datorren astelehenetik aurrera, urriak 5, eskolako atakak itxi egingo ditugu, ikasle berrien egokitzapena bukatu baita. Hori dela eta, aurreko ikasturtetan bezala, 09:15etan atezainak Ibargain parkeko eta autobus geltokiko atakak itxiko ditu eta eguerdian berriz irekiko ditu. Etxeko bazkaltiarrek beraien gurasoekin edo zaintzaileekin eskolatik ateratzen direnean, atezainak atakak berriz itxiko ditu. Ondoren, arratsaldeko saioak hasi baino lehen, 14:40etan, berriz irekitzeko.

APARKALEKUA

Familia guztiei gogorarazi nahi dizuegu, eskolako aparkalekuaren erabilpena COVID19a dela eta murriztu egin dela, ikasleek eraikinetik atera eta jolastu edo lasai egoteko eremu gehiago izan ditzaten. Horregatik garrantzitsua da bertara kotxerik ez sartzea. Eskerrik asko

ARROPA ESKAERA

Aurten proiektu berri bat jarri dugu martxan Haur Hezkuntzako etapan. 2-6 urte bitarteko haurrak naturarekin bat hazi eta hezteko proiektua da. Gure eskola leku ezin hobean kokatuta dago eta ingurune natural hau baliabide gisa erabiliko dugu.

Gure asmoa, eskolan, behar denerako arropa multzoa edukitzea da. Etxean soberan duzuen txubaskero, zira, katuska eta antzekoak eskatu nahi dizkizuegu. Arropa hau egoki erabiliko dugu eta beti COVID19aren aurkako protokoloa beteko dugu. Eskerrik asko.

ABARAXKA LUDOTEKAREN MEZUA

LH1etik LH6rako ikasleentzat ludoteka urriak 19an irekiko da. Izen ematea online izango da, urriak 2-tik 12ra www.gazteoiartzun.net blogean. Aurrez aurre elkartu ezin gaitzkeenez urriak 19ra bitarte www.gazteoiartzun.net blogaren bidez izango duzue gure berri, bertan eskaintza anitza eskainiko baitugu. Edozein zalantza abaraxka.oiartzun@gmail.com edo eta 645005496 telefono zenbakian. Bestalde, urriak 10, larunbatean, zuen iritzia jasoko dugu arratsaldeko 17:00etan: nola egin nahi duzue hurrengo "gau beltza"?

Informazio gehiago:
www.elizaldekogurasoelkartea.blogspot.com.es eta
www.elizalde.eus

PUERTAS DE LA ESCUELA

A partir del próximo lunes, 5 de octubre, cerraremos las puertas tanto de la entrada del parque Ibargain como la de la parada del autobús, ya que la adaptación del alumnado ha finalizado. Por ello, tal y como se ha hecho en años anteriores, se cerrarán dichas puertas a las 09:15 y se abrirán al mediodía para que el alumnado que come en casa puedan ser recogido. Después se volverán a cerrar hasta las 14:40, poco antes de empezar las clases por la tarde.

PARKING

Queremos recordar que debido al COVID19 se ha reducido el uso del parking de la escuela, para que el alumnado tenga más espacios al aire libre. Debido a ello, es importante que no entren coches. Muchas gracias.

PETICIÓN DE ROPA

Este curso, hemos puesto un nuevo proyecto en marcha en Educación Infantil. El proyecto tiene como objetivo que el alumnado entre 2-6 años crezca y se eduque en un medio natural. La escuela está ubicada en un entorno natural que se utilizará como recurso.

Nuestra intención es tener un fondo de ropa. Por ello, los chubasqueros, catiuscas o este tipo de ropa que tengáis de sobra en casa, será bienvenida. Esta ropa será tratada contra el COVID19 tal y como se recoge en los protocolos de actuación.

MENSAJE DE LA LUDOTECA ABARAXKA

La ludoteca se abrirá para el alumnado de Educación Primaria el próximo 19 de octubre. La inscripción se deberá hacer online entre los días 2 y 12 de octubre: www.gazteoiartzun.net. Ya que no nos podemos reunir de forma presencial, se podrá obtener información por la misma vía que la inscripción. Habrá diferentes propuestas. Para más información: abaraxka.oiartzun@gmail.com o 645005496. Por otro lado, este sábado, 10 de octubre, a las 17:00 horas recogeran vuestra opinión en la ludoteca: como queréis que sea la "noche negra"?

Más información en: www.elizalde.eus y
www.elizaldekogurasoelkartea.blogspot.com.es